



UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK

2006-07 ikasturtea

BIOLOGIA

Bi aukeretatik bat hautatu, eta erantzun itzazu dituen bi zatietako aztergaiak.

A AUKERA

1. ZATIA (5 puntu)

Irudian ikus daiteke mintzaren eredu jariakorraren eskema.


Aztergaiak

a. Mintz plasmatikoa: osaera eta egitura. (1,25 puntu)

b. Irudika ezazu, kontzeptu-eskema baten bidez, mintz plasmatikoa zeharkako garraio motak. (1,25 puntu)

c. Azaldu hiru desberdintasun egiturazko eta hiru funtziozko, zelula prokariotikoen eta eukariotikoen artean. (1,25 puntu)

d. Aipatu funtzio bat, zeinarekin lotura izango baitu honako organulu hauetako bakoitzak: lisosomak, erretikulu endoplasmatikoa leuna, erribosomak, Golgi-ren aparatua, mitokondrioak eta nukleoloa. (1,25 puntu)





2. ZATIA (5 puntu)

Aztergaiak


- a. Deskribatu, labur, mitosiaren prozesua. **(1,25 puntu)**
- b. Deskriba ezazu ARN_m aldatzeko eta heltzeko prozesua eukariotoetan. **(1,25 puntu)**
- c. Birusa erabat geldo dago zelula ostatuemaile batekin harremanean sartzen ez den bitartean. Zergatik hori? Birusak izaki bizidunak al dira? Eman itzazu aldeko zein aurkako argudioak **(1,25 puntu)**
- d. Antigeno kontzeptua. Antigorputzen funtzioa. **(1,25 puntu)**



B AUKERA

1. ZATIA (5 puntu)

Irudian ADN kate bat ikusten da.



Aztergaiak

- Justifikatu zergatik ADN sekuentzia ezberdinak gai diren proteina bera kodetzeko. (1,25 puntu)
- Azaldu zer diren errekonbinazio genetikoaren eta segregazio kromosomikoaren prozesuak. (1,25 puntu)
- Azaldu zer den gene-adierazpenaren erregulazioa, eta zergatik den beharrezkoa. (1,25 puntu)
- Zer dira egitura-geneak eta gene erregulatzaileak? (1,25 puntu)



2. ZATIA (5 puntu)

Aztergaiak

- a. Definitu katabolismo eta anabolismo kontzeptuak eta eman bakoitzaren adibide bat. Deskribatu fosforilazioaren bi modalitate eta esan non gauzatzen diren. **(1,25 puntu)**
- b. Deskribatu kloroplastoaren egitura eta egin horren marrazki bat. Azaldu fotosintesiaren argipeko fasea. **(1,25 puntu)**
- c. Inmunitate sistema. Antigenoak eta antigorputzak **(1,25 puntu)**
- d. Birusei buruz esaten da parasito nahitaezkoak direla. Proposatu baieztapen horren azalpen arrazoitua. **(1,25 puntu)**